Oso erraz lortu genezake haurrak "ez da urik kutsatu" behar esatea. Baina ez pentsamenduaren aldetik, ez hezkuntza kontsumeristaren aldetik, esaldi horrek ez dauka esanahi handirik. "Ura kutsatu" esaldiak haur horrentzat zer esan nahi duen apur bat miatzen badugu, beharbada zera aurkituko dugu: "kutsadura" hitza erreka inguruan begiz ikusi daitezkeen gauzetara murrizten dela (esate baterako, uretan doan plastiko zati bat), edo nahastu edo parekotu egiten dituela ur kutsatua eta ur uherra (hau ere begiz ikusi daitekeena). Beraz, gauzak horrela, haur horrek honelako gauzak esan ditzake (guk entzun ditugunak): "euriak kutsatu egiten du ura", "...zikindu egiten baitu". Ikuspuntu horri jarraiki, "ez da urik kutsatu behar" dioen haur batek kutsadura deituko lioke uretan datorren paper zati bati baina, esate baterako, ez luke inongo arazorik izango konketatik behera bost litro lixiba botatzeko.

Haurrek jokabide horien zergatia ulertzeko gaitasuna izan baino askoz lehenago, jokabide kontsumerista egokiak "errepikatzeko" gaitasuna izaten dute. Baina errepikapen honek lelo, "esamolde", edo agindua betetze hutsaren itxura hartzen du, eta horren arrazoia eurekin bizi diren helduen arauekin identifikatzea edo arauak bete beharra

izaten da. Epe laburrean helduak haurraren errepikapen gaitasun horretaz "aprobetxatzeak" ekarri ditzakeen onurak alde batera utzita, jokabide horrek ez dauka zerikusirik Hezkuntza Kontsumeristarekin. Antzerakoa izango litzateke haurrei 1etik 30era arteko zenbakiak esanaraztea (haurrek nahiko goiz eta erraz ikasten dutena) eta hori egiten dutelako haurrek zenbakiak menderatzen dituztela ustea... eta lasai-lasai egotea "esatari bikain" hauek pezetako lau txanponetan bosteko batean baino diru gehiago dagoela esaten dutenean.

Haurrek egin dezakete eslogan ekologistek esana eta arlo horretan "portaera ona" izan, baina obedientzia ez da jokaera norberaren arabera gidatzea, baizik eta besteek norberataz espero dutenaren arabera (moral heteronomoa) eta horrek ez dauka zerikusi handirik Kontsumoaren Hezkuntzarekin, honen helburua zera baita: hiritar bakoitzak jokabidea arautzeko eta gauzak analizatzeko irizpide autonomoak izatea kontsumorantz bultzatzen duen presio indiskriminatuaren aurrean. Baina autonomian eginiko Hezkuntza hau (horrelakoxea izan behar luke Hezkuntza Kontsumeristak) ezinezkoa da inguruko errealitateaz eta gure ekintzek errealitate horretan eragiten dituzten ondorioez jabetu eta horiek ulertu ezik.



Beraz, ikusten den bezala, hezkuntzaren arazo hau oso konplexua da. Eta oro har konplexua izanik, are konplexuagoa da haur txikienekin (-7 urte). Adin horretan argi eta garbi geratzen baita haurrek ez dutela mundua guk (helduok) bezala ikusten. Adin

ikusten. Adin honetako haurren pentsaeraren ezaugarriek ("pentsamendu preoperatorioa" deritzona) mugatu eta baldintzatu egiten dute errealitateaz jabetzeko haur hauek duten ulermena:

— Pentsaeraren aldi preoperatorioaren (2-7 urteko tartea, gutxi gorabehera) ezaugarrietariko bat EGOERAK VERSUS TRANSFORMAZIOAK deritzona da:

Aldi honetako haurra prozesu batean hurrenez hurren datozen egoerez jabetzen da, egoera bat beste egoera bat bihurtzen duten transformazioez ohartu beharrean.

Esate baterako, heldu batek (edo haur nagusiago batek) ez luke zailtasun handiegirik izango zuhaitz baten erorketa era honetan irudikatzeko. Haur txikiak aldiz, ezin izaten ditu zuhaitzaren tarteko posizioak marraztu eta batzutan ezta ezagutu ere.

Haur preoperazionalek zailtasun handiak izaten dituzte ekintza sinplez osatutako sekuentzia horrekin. Ez dira gai egoera edo baldintza serie bat osotasun koherente batean, hau da, transformazio batean, integratzeko.

Gauza bera gertatzen da haurrei zerua eta ura irudikatzen duen grafikoa erakutsi eta ikusten dutena deskribatzeko eskatzen zaienean. Haurrek ikusten dituzten elementuen enumerazio estatiko bat egiten dute (estatikoa, "estado"tik dator, egoeratik, beraz) baina ez dute haien arteko konexio dinamikorik ikusten, ez dira transformazio prozesua adierazten duen konexioaz jabetzen. 7 urteko haur (hau da, haurtzaro preoperazionalaren azkenetan daudenak) batzuengan besterik ez ditugu aurkitu egoeretan zentraturik ez dauden deskripzioak:

"euria ari du eta gero errekatik itsasora doa eta gero ura gora doa, ez dakit nola. Hodeiek elkar jotzen dutenean euria hasten da, ura hodeietan dago, flotatzen bezala, eta talka egiten dutenean euria egiten du". Ea ura beti hodeian bertan dagoen galdetzen diogunean haurrak honela erantzuten du "Ez, gora doan arte, ez dago han".

"Euria da eta gero errekara doa, gero errekatik airearen bidez hodeira eta berriro itzultzen da. Urak, hodeietatik ura botatzen du eta euria hasten da".

— Pentsamendu preoperazionalaren beste ezaugarri bat ZENTRAZIOA deritzona da: haur preoperazionalak arreta guztia pentsatzen ari den gauzaki edo gertakariaren berezitasun deigarri bakar batera bideratzen edo zentratzen du, eta baztertu egiten ditu beste alderdi garrantzitsu guztiak. Ondorioz distortsionatu egiten du arrazonamendua. Beste era batean esateko, haurra ezin da deszentratu, hau da, ez da gai berezitasun batean zentratzeak dakartzan efektu distortsionatzaileak (eta partzialak) orekatu eta osatuko lituzkeen alderdiez jabetzeko. Aldi preoperazionalean, haurrak, hausnartu nahi dituen fenomenoen azaleko mugen barruan dihardu eta bere arreta gehien erakartzen duten azaleko alderdiez baino ez da jabetzen. Alderdi



Arrasateko "San Andres Eskola"

hauek, deigarrienak, zentzumenen aldetik nabarmentzen diren alderdiak izan ohi dira. Hargatik, zentrazioaren berezitasunaz gainera, esan ohi da, aldi honetako haurraren arrazonamendua ZENTZUMENEN BIDEZKO EDO AGERIKO GAUZEN LEHENTASUNAk gidatzen duela. Hala, esate baterako, pitxer bateko esnea 10 edalontzitan husten badugu, aldi honetako haurrek ziur aski pentsatuko dute, edalontzi gehiago dagoenez, esne gehiago egongo dela 10 edalontzietan hasieran pitxerrean zegoena baino (hau da, ez dute kontuan hartzen edalontzi bakoitzean askoz esne gutxiago dagoela pitxerrean baino).

Eta horixe da lehen azaldu dugun adibidean -"euriak kutsatu egiten du ura... zikindu egiten baitu" dioen haurraren horretan- gertatzen dena. Haurrak bere lexikoan "kutsadura" hitza sartu du baina horrek ez dauka helduok ematen diogun esanahi berbera. Adin horretako ume batentzat "kutsadura" zentzumenen bidez baino ezin daiteke ulertu beraz "uherrarekin" nahasten du. Esaldi horrekin umeak adierazi nahi duena zentzumenez berak jaso duen esperientzia da, euria ari duenean, ura uher bihurtzen dela (lurrarekin edo lokatzarekin nahasten delako). Eta hortik ateratzen du beste ondorioa, euriak kutsatu egiten duela ura eta, logika horrekin jarraituz, "denborarekin ura bera bakarrik garbitzen da" gaineratuko du.

Ezaugarri berbera nabarituko zaie haurrei galdera hau egiten badiegu: "nola heltzen da ura etxeko txorrotetara?". Eta galdera horren erantzuna emateko orduan, zenbait haurrek (beti txikienek, 5-6 urtekoek) uraren alderdirik deigarrienean oinarrituta erantzuten dute, euria egiten duenean ura agertzen dela gogoratuz. Ondorioz, haur hauek zera esango dute, txorro-

tako ura teilatutik datorrela euria ari duenean:

"teilatuetatik etortzen da euria ari duenean".

"beharbada teilatua apurtuta egongo da eta bertatik sartzen da".

Haur berberei "euririk ez bada, ez da urik irtetzen txorrotatik?" galdetu ezkero, hasieran, "euririk ez bada, ez dago urik" erantzungo dute, "euria denean, ura dago, bestela ez" esango dute eta jarraian gaineratuko dute, "euririk ez denean ura beste leku batetik etortzen da, kalean dauden hodietatik" (baina eurenari eutsiko diote euria denean teilatutik datorrela esanez. Beharbada, etxeko hodien sarea -ezkutukoa dena- nahastu egiten dutelako teilatutik behera datozen kaneriekin, handik ura irtetzen ikusi baitute euria denean).

— Pentsaera preoperatorioaren beste ezaugarri bat ARRAZONAMENDU TRANSDUKTIBOA deritzona da. Haurrak, bere arrazonamenduan, konexio asoziatiboak egiteko joera dauka, benetako erlazio deduktiboak edo kausalak baino errazago, arrazonamendu kate bateko atalen artean. Hau da, gauzak elkarren ondoan jartzeko joera dauka. Haurrari «A»ren arrazoia galdetzen bazaio, haurrak zergatia «B» dela esango du, nahiz eta «B» hori, eskema global batean «A»rekin batera aurkeztu den beste elementu bat besterik ez izan.

Horixe da haurrei euriaren zergatiaz galdetzen diegunean gertatzen dena. Sarri askotan honelako arrazonamendu transduktiboa aurkitzen dugu:

"Euria egiten du trumoi-hotsa eta tximistak daudenean, hodeiek botatzen dituzte, dena estaltzen denean, eguzkia ere bai".

"Eguzkirik ez dagoenean egiten du euria".

"Lehenengo euria egiten du, gero hotza egiten hasten da eta euria hasten da; ekaitza, eta gero euria egiten du. Euria hurbiltzen hasten da, planetaraino doa eta eguzkia joan egiten da»... eta udan?... "berdin, eguzkia joan egiten da, hotza etortzen da eta gero euria".

"Badira hodei beltz batzuk, ura dutenak, orduan zuriak joan egiten dira eta beltzak ipintzen dira".

— Kausalitatearekin lotuta dagoen beste ezaugarri preoperazional bat ANIMISMO eta ARTIFIZIALISMOA deritzona da: animismoa bizirik gabeko zerbaiti bizia, asmoak eta kontzientzia ematea da. Haurrek egozentrikoki (helduko diogu geroago gai honi) uste dute, gure ekintzek asmoa duten bezala eta egiten ditugun kontzientziaz egiten ditugunez, gauzek ere kontzientzia motaren bat izan behar dutela euren egitekoak egin ahal izateko.

Artifizialismoa deritzo errealitate guztia giza jardunaren ereduen arabera eraiki dela ulertzeko joerari. Errealitate hori gizakiak berak edo gizakien moduan lanegiten duen Jainko batek eraikia izaten da artifizialismoarentzat: aintzirak lurrean indusita egin direla, mendiak lurra pilatuta, etab.

Haurrei eginiko galderak ez dira haurren pentsaera animista agerian ipintzeko berariaz egin, bai-

na erantzunetako askok erakusten dute euren ikusmolde artifizialista.

* Haurrek hodeiak nola eratzen diren azaltzen dutenean, "ura itsasotik igotzen da" dioten haur urriak (7 urtekoak) alde batera utzita, ume askok giza ekintza baten bidez adierazten dute hodeien jatorria:

  "Hodeiek egiten dute euria, keak egiten du hodeia".

  "Hodeiak kebideetan egiten dira". (Azalpen artifizialista hauek, ziur aski, zentzumenen bidez aztertuta kearen eta hodeien artean dagoen antzaren ondorioa izango dira).

* Euriaren zergatiari erantzuterakoan ere artifizilismora jotzen dute sarri askotan edo erdibidean geratzen dira, azalpen artifizialista eta zientifikoaren artean:

  "Euria hodeien barruan dago, zulo bat eta jada, Jesusitok egin du eta orduan euria egiten du zuloa egiten duenean".

  "Ez dakit, beharbada aingerutxoak urarekin ari dira eta gero geuri botatzen digute".

  "Euria ari du eguzkirik ez dagoenean. Jesusitok botatzen du eta bera ez dagoenean bere laguntzaileek botatzen dute".

  "Beharbada hodeian egiten dute. Beharbada tramankuluren bat egongo da, edo zeozer berezia, hodeiak daukana eta ura egiten duena. Tutuak izango ditu, edo horrelakoren bat eta ura egingo du".

  "Bi hodei elkartzen direnean, ba, hodeiak bustita daudenez, topo egiten dute eta euria egiten du, bestela, ez... Niri Milak esan dit aingeruek txiza egiten dutela baina nik ezetz uste dut. Hodeiak ura dira... beharbada Jesusek txiza egin eta busti egingo zituen".

— Aipatuko dugun azken ezaugarria, ziur aski nabarmenena eta beste guztiei zentzua ematen diena, EGOZENTRISMOA da. Egonzentrismoak zera esan nahi du, haur preoperatorioa ez dela gai errealitatea ulertzeko berea ez den beste ikuspuntu batetik. Eta gaitasun ez hori ez du gogorik ezak edo egoismoak eragiten. Haurrak ez ditu beste ikuspuntu edo aukera batzuk kontuan hartzen, besterik gabe, bururatu ere ez zaiolako egiten besterik dagoenik. Egozentrismo horrek bi ondorio garrantzitsu dakartza esku artean dugun gaian. Horietako bata, azken ondorioak ateratzen ditugunean azalduko dugu. Bestea zera da: egozentrismoaren eraginez, haurrak bere baitatik, hau da, bera nolakoa den eta bere burua nola ikusten duen kontuan hartuta, azalduko du errealitatea, edozein errealitate. Eta fenomeno guztiak haurrak bere bizitako esperientzien bidez azalduko ditu, azaldu nahi duen fenomenoarekin antzen bat duten edo oroimenen bat ekartzen dioten esperientzien bidez.

Haurren animismoa eta artifizialismoa oso ondo azaldu daitezke egozentrismoarekin: hala, esate baterako, bizikleta bat bizirik dago, mugitu egiten delako («zeren ni mugitu egiten naiz eta



bizirik nago»), edo aintzira gizakiek indusi eta urez beteriko zuloa da («zeren eta hondartzan zulo bat egin eta urez betetzen badut, aintzira bat dirudi»).
Zentrazioa ere ulertu daiteke egozentrismoaren bidez, izan daitezkeen ezaugarri (edo ikuspuntu) guztien artean bakar batean zentratzea egozentrismoaren ondoriotzat hartu baitezakegu.

Berriro harira itzuliko gara. Ikusten dugun moduan, haurrek egozentrikoki eurenganatzen dute hodei eta euriaren moduko gertakari misteriotsu eta ukiezin samar hori, euren esperientziekin, euren begietara antzerakoak diren esperientzien bidez: haurrak badaki botila itxi eta bete bat, erori eta zerbaiten kontra jo ondoren, hausten bada, ura irtengo dela. Badaki, halaber, sabela urez betetzen zaiola edaten duenean eta hustu ere husten zaiola, txiza egiteko daukan zulotxo batetik. Haurrak esperientzia «ego-zentratu» horiek (eta beste batzuek) hartu eta hodeien eta euriaren fenomenoa azaltzeko erabiliko ditu.

Hala, adibidez, hodeiak ez dituzte urtzat hartzen, urez beterik dauden ontzitzat baino. Eurentzat «hodeia» ontzikia da eta barrukoa ura. Euria egiteko, hodeiek ireki egin behar dute, edo hautsi edo zulotu. Irudi bat erabiltzearren, badirudi hodeiak haurrentzat «urezko hestebeteak» direla:

«Hodeiak irekitzen dira eta gero euria jausten da. Hodeiak batu egiten dira eta euria hasten da. Euria barruan dago. Hortxe egoten da eta euria egiten duenean, gero, lurrera erortzen da».



«Ura barruan dago, hodeietan eta jada, Jesusitok egin du eta orduan, zuloa egiten du».



«Beharbada aingerutxoak urarekin arituko dira eta gero geuri botatzen digute».

«Hodeietan, beroarekin ur tantak jaiotzen dira. Handitzen-handitzen doaz eta gero herrira joaten dira eta gero etxeetara joaten dira».



«Urak, hodeian doanean, tantak daramatza eta bata besteari itsasten zaizkio eta horrela. Hodeiak batu egiten dira eta «danba» egiten dute eta gero «plasta» eta euria beherantz abiatzen da».

«Ura hodeietan dago, flotatzen bezala, eta topo egiten dutenean, euria egiten du».

«Hodeiak topo bezalako batean batzen direnean «bunba», ba, listo, euria hasten da. Ez dakit nola egin den euria hor».



«Hodeiak beteta daudenean, erori egiten dira».



Haurren erantzunei begiratu bat eman eta haien pentsaeraren ezaugarriak ikusi ondoren, heldu diezaiegun berriro hasierako 12 puntu haiei (giza erabilpenerako uraren arazoak hezkuntza kontsumeristaren ikuspegitik lantzeko kontuan izan behar diren alderdiak eta euren arteko interakzioak). Dudarik gabe, gure buruari galdetu beharko genioke benetan zein aukera daukagun, transformazioez jabetu beharrean horien une estatiko batzuez besterik jabetzen ez diren haurrei, hamabi puntu horietan iradokitzen den ulermena eskueran jartzeko. Nola lortu, haur horiek edozein egoeratan zentzumenarentzat nabarmenena den ezaugarrian baino ez badira zentratzen, eta horren ulermenak 2-3 edo 5 alderdi garrantzitsu batera kontuan hartzea eskatzen badu? Nola haur egozentriko, animista eta artifizilistekin?...

Galdera honek adin honetako haurrekin landu nahi den beste edozein kontsumo gaitarako ere balio du, gai guztietan agertzen baitira pentsaeraren ezaugarri preoperatorio horiek.

Adin honetako haurren pentsaera hain da ezberdina, izaeran bertan, helduaren pentsaeraren aldean, eta helduen pentsaeraren legeetatik hain urruneko legeak jarraitzen ditu, ezen zentzugabea baita adin honetako haurrekin aipaturiko hamabi puntuen inguruan egituratzea hezkuntza lana.

Orduan, zer egin daiteke adin honetakoekin Kontsumoaren Hezkuntza jorratzeko?

- Haurrei hodeiak nola eratzen diren, euria nola sortzen den, hodeieria nola egin zen edo araztegiaren funtzioa zein den informatzeak ezer gutxi balio du, nahastu egiten du haurraren burua eta haurrak bere pentsaerarekiko mesfidantza sentiaraztea eragiten du, berak "uste" duenak ez baitauka inongo zerikusirik hezitzaileak esaten dioenarekin (eta horixe izango da egia). Gainera, haurrak harturiko informazioa bereganatu eta berrantolatu egingo du, bere erara, informazioa hartu duen unean buruan dituen pentsaera-eskemen arabera. Eta, azkenean, hezitzaileak esan duena eta haurrak "entzun" duena bi gauza ezberdin izango dira (Piaget-ek kontatzen du, hodeiak kebideetatik zetozela uste zuten haur batzuei hodeiak lurrunetik datozela eta lurruna ur beroak edo irakinak sortzen duela esan ondoren, haur haiek aldatu egin zutela euren iritzia, bai: ordutik aurrera, hodeiak lapikoetatik irtetzen ziren!).

Haurrei gizalegezko ideia batzuk ematea egin daitekeena da, erraza eta zenbaitetan, komenigarria ere bai. Baina beti izan behar da gogoan, ideia horiek lelo hutsak direla haurraren gogoan, era heteronomo, pasibo eta obedientean bereganaturiko leloak. Ideia horiek ez dute pentsamendu landu batean oinarririk hartu eta, beraz, hauskorrak dira eta kontrako edo kontraesandun esloganekin ahazteko modukoak (esate baterako, hezitzaileak zera diotso haurrari "ez inor jo" eta, aldi berean, aitak etxean zera diotso "jotzen bazaituzte, zeuk ere egurra eman").

- Gure pentsaeraren eta pentsaera preoperatorioaren artean dagoen alde ikaragarria kon-

tuan hartuta, euren pentsaerarekin erraz konektatzen duten sinbolo eta irudien bidez ahalegindu gaitezke haurrengana hurbiltzen, konexio hori lortu ezkero zenbait gauza ulertuko dituzten esperantzarekin. Haurrak ekintza sorta batean murgilarazi ditzakegu eta bertan, esate baterako, hodei triste batek negar egingo du, eguzkia honelaxe marraztuko dugu,  ur tanta bat honela eta lehenago marraztu dugun hodeietakoren baten moduko  bat ere egin dezakegu. Dudarik gabe, haurraren gogoa oso hurbil dago horiekiko eta erraz hartzen ditu horrelako sinbolo eta irudiak, baina helduok horrelakoak erabiltzeak hainbat zalantza sortzen ditu. Haurtzaro preoperazionalean dagoen haurrak ez ditu argi bereizten jolasa/fantasia eta errealitatea, ez da ohartzen bi eremu ezberdin direla, oinarrian arau berezi eta ezberdinak dituztela. Ulermena areagotzeko helburuarekin, helduak honelako sinboloak (fantasiaren arloakoak) erabiltzeak indartu egiten du bi eremuon arteko bereizketarik eza eta "errealitatearen ulermen fantastikoa" bultzatzen da. Fantasiaren munduan argi eta garbi kokatzen bagara eta jolas sinbolikoa, marrazki librea eta maitagarrien ipuinak hartzen baditugu, orduan ez dago inongo arazorik hodeiek negar egin dezaten, bi tanta adiskideak izan daitezen, herensugeek printzesak bahitu ditzaten edo printzeak igel bihurtu daitezen. Baina helburua gure inguruko errealitatearen alderdiren bat ulertzea denean, aldatu egin behar dugu eskema (zer gertatuko litzateke matematiketako klase batean -non haurrak 2 sagar gehi 3 sagar zenbat diren jakin behar baitu- haurren batek bikoa ahatetxoa dela esango baligu?).

Eragozpen guzti horiek jarri ondoren... landu al daiteke Hezkuntza Kontsumerista haur preoperatorioekin? ... Bai, egin daiteke... Egin daiteke, behintzat, Hezkuntza Kontsumerista honela ulertzen badugu: espazioak eta denborak sortzea, haurrak inguruko munduari buruz, bere buruari galderak egin diezazkion, gauzak hausnartu ditzan eta mundu horretako zenbait osagairekin esperimentuak egin ditzan (esate baterako, urjolasen bidez). Horrelako kontestu batean haurrek pentsatzen dutena esango dute, munduari buruzko euren azalpenen berri emango digute. Azalpen gehienak oso itxuragabetuta egongo dira. Eta izango dira ezberdintasunak azalpen batetik bestera ere: azalpen batzuk eboluzionatuagoak izango dira, beste batzuetan errealitateak berak jarriko die kontraesana...

Pentsaera preoperatorioaren izaera egozentrikoaren ondorio garrantzitsuetako bat haurrak berea ez den edozein ikuspuntu dagoenik ere ez dela jabetzen da. Haurrak ez du bere arrazonamenduak beste batzuen aurrean zilegitzeko eta argudiatzeko beharrik ikusten, ezta bere logikak izan ditzakeen kontraesanak bilatzeko beharrik ere. Aro honetako haurrak baieztatu egiten ditu gauzak, etengabe, sekula ezer frogatu gabe.

Hezitzailaren eginkizuna izango da haurrei euren baieztapenak frogatzeko eskatzea eta euren azalpenak aurrez aurre jarriaraztea: haur batek uste badu ura txorrotatik euria denean besterik

ez dela irtetzen, hezitzaileak beste haurrei galdetu diezaieke ea eurek ere hori uste duten eta, euria ez den une batean, eskolako txorrota irekitzeko eskatu diezaioke haur horri .

Ur garbia eta harraskatik edo komunetik behera doana hodi ezberdinetatik joan behar dutela jakinik, arazo horri azalpenen bat aurkitzeko kezka zuen neskato batek zera esan zuen «gero, berriro errekara doa harraskako zulotik hodien bidez eta loreei eta baratzei botatzeko aprobetxatzen da. Gero gizonek eskularruekin hartuko dituzte kakak eta zakarrontzira botako dituzte». Hezitzaileak zera galdetuko dio haur hori, ea ezagutzen duen eginkizun hori duen langilerik edo ea dakien non egiten den lan hori. Beharbada, eztabaida amaitu ondoren, haurrek ez dute argi izango horrelako langilerik dagoen ala ez dagoen, baina beharbada ohartuko dira ur zikina eta garbia ez direla nahasten.

Azkenik, argi geratu behar da hezitzailearen helburua honakoa dela: haurrek -zein ondorio ateratzen duten alde batera utzita- gauzak pentsatu, adierazi, aurrez aurre jarri eta frogatu ditzatela. Hezkuntz helburua ez da erantzun zuzena lortzea, erantzunen bila abiatzea edo, are hobeto, etengabe galderak sortzea baino.

Flavell-ek dioen bezala, norbere pentsaeraz jabetzen den pentsaerarik, argudiatzeko gai denik eta, oro har, kontraesanaren, koherentziaren eta abarren arau logiko-sozialak errespetatzeko gai denik, ezin daiteke sortu haurrak interakzio interpertsonalei behin eta berriro ekiten ez badie, horietan haurra derrigortuta egoten baita behin eta berriro bestearen paperaz kontzientzia hartzera. Interakzio soziala da haurren egozentrismoari azken herio-ukaldia ematen diona.



# ZEHARLERROAK
## KONTSUMITZAILEAREN HEZKUNTZA

*Nieves Alvarez, Irakaslea eta Kontsumo Hezkuntzan Aditua. Santander*

Gaurko gizartean hainbat alderdi daude eguneroko bizimoduan parte hartzen dutenak eta honen garapenean garrantzi handia dutenak. Era batera edo bestera interesa sortzen duten arazoak dira eta azken urteotan jende guztia dago oso arduratura arazo horietaz.

Gure inguruan begiratzen badugu edo telebista pizten badugu ez da zaila izaten telesaioren bat edo eztabaidaren bat aurkitzea, gai horien inguruan. Gizarteak '*jakin egin nahi*' du eta edukin horiek eskolako programetan sartzea eskatzen du.

Zeharlerroei heltzeko orduan, ikastetxeak eta irakasleak horretan erakusten duten gogo, jokabide eta interesak berebiziko garrantzia dauka jartzen diren helburuak lortzeko garaian. Gai hauek jokabidearekin duten lotura erabat estua denez, hezkuntz inguruneko elementuek bat etorri behar dute haien sorburu den filosofiarekin. Esate baterako, ez genioke Kontsumitzailearen Hezkuntzari heldu behar harik eta gure ikastetxeak paper birziklatua erabiltzea erabaki arte.

Zeharlerroek -hots, gure jarduerari zentzu globala ematen dioten bizitzako alderdiek- oso lotura estua dute elkarrekiko. Esate baterako, nola helduko diogu kontsumoaren gaiari, baldin eta kontuan hartzen ez baditugu, erosketetan hartzen ditugun erabakiek ingurugiroan duten eragina, janariak zentzurik gabe hartzeak ekarri ditzakeen osasun kalteak, zenbait kontsumo gaik etxean eragiten dituen ezbeharrak, bonbonkeriazko jokaerak, publizitatean gizonezko eta andrazkoek dituzten irudiak, kontsumitu ezin dutenen bizimodua (hainbat tirabira eta gatazken sortzailea dena)... azken buruan, kontsumitzearekin lotuta dauden arazo global guzti horiek? Nahi gabe ere, zeharlerro bati heltzen diogunean, beste gai batzuetan azaltzen diren gaiak jorratuko ditugu.

Jakina, arazo guzti horiei konponbidea aurkitzea ez da eskolaren eginkizuna bakarrik: funtsezkoa da hiritarra zeharlerroetan hezitzeko, gizartearen parte hartzea; premiazkoa eskolak hainbat giza elkarte eta ingurunerekin batean (haien baitakoa baita) elkarlanean jardutea.

Zeharlerroek argia eman behar diote Haur Hezkuntzako irakaskuntzaren jardun guztiari, baina, horretarako, ezinbestekoa da irakasleek, lehentasunez, aintzat hartzea. Txikienekin diharduten irakasleek gai horien inguruko jarduna globaliza-

tzeko premia ikusten badute, izango dugu horretan saiatzeko aukera. Bestela ez.

Gai horiek lantzea benetan baliagarria izan dadin, zeharlerroak familiarekin batera landu behar dira, era global batean. Ahaztu egin behar ditugu arloak eta globalizatu zeharlerroen edukinak.

Haur Hezkuntzan parte hartzen duten umeen ezaugarriak direla eta, ezinbestekoa da laneko giroa beroa izatea, ziurtasun emailea eta gustora egoteko modukoa; ongizate orokorreko inguru horrexek lagunduko baitu haien gaitasun guztiak garatzen.

Programatzen diren ekintzek euren gustokoak izan behar dute, erakargarriak, ekintzen garapenean globalki parte hartzeko bidea eman diezaieten. Tajuz eta zentzuz egituratu behar dira bai espazioari eta bai materialari dagokienez. Eta hezkuntz komunitateak ebaluatzeko modukoak izan behar dute.

## KONTSUMITZAILEAREN HEZKUNTZA

Kontsumitzailearen Hezkuntzaren xedeak oso argiak dira etapa honetan:

Haurrak kontsumo gaiekin harremanetan jartzea, eguneroko bizimoduko gauzakiak behatu, identifikatu eta manipulatuz, haien ezaugarriak ezagutu ditzaten eta haien arteko harremanak antzeman ditzaten, ondorioz, gauzaki bakoitzaren erabilpen egokia zein den antzemateko aukera emateko.

Kontsumitzailearen hezkuntza ekologikoak ere garrantzi handia izan beharko luke gure artean. Haurra txiki-txikitatik jabetu behar da bakoitzaren jokabideak eragina duela inguruan. Lore bat zapalduz gero, hil egingo da. Arrosa bat zanpatuz gero, hostoak galduko ditu.

Jarraian, ekintza sorta bat aurkeztuko dugu, Kontsumitzailearen Hezkuntzarako edozein proiektu globalizatutan sartzeko modukoa dena. Horrez gainera, ekologiari aparteko garrantzia emateko, sail berezi bat prestatu dugu gai horren inguruko ekintzak lantzeko.

## KONTSUMOA

Komunikabide mota guztietako iragarkiak ezagutzea. Iragartzen diren marka eta produktuak bereiztea.

Elikatzeko premiaz jabetzea. Elikaduraren 'gurpilaren' eta hura osatzen duten produktuen berri izatea. Denetik, eta batik bat barazkiak eta fruituak, jaten ikastea. Etiketak bilatzea. Gosariari eta gozokiei buruz hitz egitea. Jaki errazak prestatzen ikastea.

Etxeko gelak. Bakoitzaren erabilera egokia, bertako altzari eta tresneriak errespetatu eta zaintzea.

Jostailurik gabe jolasten ikastea. Jostailuekin jolasten ikastea. Jostailuak eta eskolako materiala zaintzea. Iragarkietan azaltzen diren jostailu batzuk benetan nolakoak diren ikustea.



Inguruan dituen instalazio eta zerbitzuak non dauden eta zertarako diren jakitea. Egunero darabiltzan zerbitzuak begirunez erabiltzen ikastea.

Norberaren higiene, garbitasun eta txukuntasunezko jokabideei garrantzia ematea. Eguneroko bizimoduan agertu daitezkeen arrisku eta ezbehar batzuk ezagutzea. Kontuz ibiltzea. Euren adinekoek erabiltzen dituzten tresnak behar den moduan erabiltzen ikastea.

Taldean egiteko jolasetara zaletzea. Aisialdia nola erabili ikastea. Lanerako, jolaserako, aisiarako eta atsedenerako aldiak bereiztea.

Ohiturak hartzea: argiak itzali, txorroak itxi, paperak paperontzira bota. Ingurugiroarekin harremanetan jartzea, hura zaintzea eta errespatzea.

Gauzek dirua balio dutela jakitea. Txanpon batzuk ezagutzea. Aurrezteaz jabetzen hastea.

Gauzak erosi eta saltzera jolastea. Denda batzuk eta bertan saltzen dituzten salgaiak bereiztea. Haur bakoitzak berak bakarrik erosten duenaz hitzegitea. Garbi eta ontziratuta dauden salgaiak erosten ikastea.

## EKOLOGIA ETA KONTSUMOA

Natura behatzeko ekintzak antolatu ditzakegu:

Materialez baliatzea, behar den moduan erabiltzea, ez alferrik galtzea eta ez botatzea.

Ingurugiroa hobetzeko ekitaldietan parte hartzea eta ingurugiroarekin loturiko arazoak



## EGITASMO GLOBALDUA

Jarraian, egitasmo globaldu baten adibide konkretu bat aurkezten dugu. Bertan Haur Hezkuntzan sartzen diren arlo guztiak eta lehenago aipaturiko zeharlerro guztiak hartzen dira kontuan.

Taula gisa aurkezten dugu sintetikoagoa eta erabiltzeko errazagoa izan dadin. Lehen zutabean, 'PROGRAMAZIOA' deritzonean, ekintzen ardatza zein izango den azaltzen da. Bigarrenean, 'EKINTZAK' deritzonean, hainbat ekintza aurkezten dira, sekuentziatuta eta banaka hartuta ere balio dutenak. Hirugarrenean, 'GAIAK' izenekoan, programazioaren atal bakoitzean sartzen diren zeharlerroak agertzen dira.

konpontzea: zuhaitz bat landatzea, eskolako jolastokia edo inguruko parkeren bat garbitzea, gelako landareak txandaka zaintzea, paperak batu eta birziklatzeko paperontzira eramatea...

Oso baliagarria da hezkuntz egitasmo honetarako baratza txiki bat eta oilategi eta untxitegi txiki bat prestatu eta zaintzea.

Ikasgela basoa balitz bezala apaintzea.

Naturaren dantza eta jolasak egitea.

Zabortzat botatako gaiekin jostailuak egitea (kontuz ibili eta gai sinpleenak eta arrisku gutxien dutenak hautatu).



| PROGRAMAZIOA | EKINTZAK | GAIAK |
|---|---|---|
| 1.- Ikusten ditugun gauzak:<br>- Kalean.<br>- Etxean.<br>- Ikastetxean.<br>- Dendan. | - Toki bakoitzean ikusten ditugun gauzen zerrenda bat egingo dugu. Marraztu egingo ditugu. Zertarako, diren, zer egiten duten, nolakoak diren azalduko dugu.<br>- Kaleko, etxeko eta dendako gauza batzuk ekarriko ditugu gelara. Ludotekaren txokoan ipiniko ditugu. Haien balioa, forma, kolorea, soinua, usaina, ukimena frogatuko dugu. Bakoitza zentzumenetako batekin lotuko dugu. | - Ingurugiroaren Hezk.<br>- Kontsumoa.<br>- Trafikoaren Hezk.<br>- Osasun Hezk. |
| 2.- Ezagutzen ditugun pertsonak. | - Ezagutzen ditugun pertsonen zerrenda bat egingo dugu. Marraztu egingo ditugu. Zein ogibide duten, zer egiten duten, nolakoak diren azalduko dugu.<br>- Euren artean dauden berdintasun eta ezberdintasunak adieraziko ditugu.<br>- Horien artean emakumeak direnei buruz dakiguna eta haiekin dugun harremana denon artean landuko dugu. | - Kontsumoa.<br>- Moral eta Bakearen Hezk.<br>- Aukera Berdintasuna.<br>- Osasun eta Sexuaren Hezk. |
| 3.- Gauzen eta pertsonen irudia. | - Gure familiakoen eta txikiak gineneko argazkiak ekarriko ditugu.<br>- Bideoan grabatuko dugu: gure irudia, ikaskideena (hizketan, jaten, zerbait egiten...) eta kalean ikusten ditugun pertsonena.<br>- Ikusten dugunari buruz hitz egingo dugu. Zertan garen antzerakoak, zertan ezberdinak. Zertan ari den bakoitza.<br>- Gure argazkiak hormirudi batean ipiniko ditugu eta ondoan, marrazkien bidez, zer dugun gogoko eta zer ez. Besteek zer ipini duten begiratuko dugu. | - Kontsumoa.<br>- Moral eta Bakearen Hezk.<br>- Aukera Berdintasuna.<br>- Osasun eta Sexuaren Hezk. |
| 4.- Entzuten ditugun gauzak:<br>- Musika.<br>- Zaratak.<br>- Irratia.<br>- Hitzak.<br>- Isiltasuna. | - Musika bat entzungo dugu eta erritmoarekin batera mugitzen saiatuko gara. Musikarekin sentitzen dugunari buruz hitzegindo dugu.<br>- Kaleko hots eta zaratak entzun eta grabatuko ditugu: ibilgailuak, dendak, lantegiak, pertsonak... Isiltasuna entzuten ahaleginduko gara. Gelan entzungo dugu grabatu duguna eta bereizten ahaleginduko gara.<br>- Irratia entzungo dugu.<br>- Gure ludotekarako, musika edo hotsak ateratzen dituzten gauza edo tresnak ekarriko ditugu. | - Ingurugiroaren Hezk.<br>- Trafikoaren Hezk.<br>- Moral eta Bakearen Hezk.<br>- Aukera Berdintasuna.<br>- Osasun eta Sexuaren Hezk. |

| PROGRAMAZIOA | EKINTZAK | GAIAK |
|---|---|---|
| 5.- Ikusi eta entzun egiten ditugun gauzak:<br>- Telebista.<br>- Zinea.<br>- Bideoa. | - Telebistako iragarki bat ikusiko dugu. Iragarkiko pertsonak egiten edo esaten duenaz jabetuko gara. Konparatu egingo dugu guk edo gure familiak egiten duenarekin.<br>- Marrazki bizidunen filme labur bat ikusiko dugu. Komentatu egingo dugu.<br>- Kalean grabatu dugun bideo bat ikusiko dugu. Komentatu egingo dugu. | - Ingurugiroaren Hezk.<br>- Trafikoaren Hezk.<br>- Moral eta Bakearen Hezk.<br>- Aukera Berdintasuna.<br>- Osasun eta Sexuaren Hezk. |
| 6.- Edaten eta jaten ditugun gauzak:<br>- Etxean.<br>- Kalean.<br>- Festa batean. | - Deskribatu, marraztu, ebaki, itsatsi egingo ditugu elikaduraren 'gurpilean'.<br>- Jatea gustatzen zaiguna eta ez zaiguna. Jaten ditugun gauzen zaporeak. Sagar bat jango dugu eta hozkatzean, mastekatzean, irenstean... sentitzen duguna azalduko dugu. | - Ingurugiroaren Hezk.<br>- Kontsumoa.<br>- Osasun eta Sexuaren Hezk. |
| 7.- Ukitzen ditugun gauzak. | - Gure inguruan dauden gauzen testura frogatuko dugu. Paperean erreproduzituko dugu testura hori tanpoi baten bidez.<br>- Gauzak ukitu gabe nolakoak diren aztertuko dugu.<br>- Hainbat gauzak begiratu gabe nolako zaporea duen frogatuko dugu. Gauza berbera begi bistan dugunean, gustatzen al zaigu? | - Ingurugiroaren Hezk.<br>- Trafikoaren Hezk.<br>- Moral eta Bakearen Hezk.<br>- Aukera Berdintasuna.<br>- Osasun eta Sexuaren Hezk. |
| 8.- Jaten, ikusten eta ezagutzen ditugun gauzen usainak. | - Jaten, edaten, ukitzen eta ikusten ditugun gauzen eta tokien usaina frogatuko dugu.<br>- Zentzumenen ludoteka antolatu eta erabiliko dugu: begiak estalita, estali gabe eta estalita baina laguntzaile batekin. | - Gai guztiak. |



Jakina, egitasmo hau gauzatzeko orduan, aldaketak egin daitezke eta egin, egin beharko dira, haur taldearen arabera. Esate baterako, haurraren lehen hilabeteetan, gauzen ezagutza lantzen hasi gaitezke jolas bezala hartuta, 7 urtekoekin, berriz, hemen proposatu dugunaren antzerako egitasmoa garatu dezakegu.

# EKOLOGIA ETA KONTSUMOA

*Batzu (1993): "Infantil. Educación del Consumidor". Dirección General de Consumo de Castilla-La Mancha. Toledo*

## 1.- Sarrera

Dudarik gabe, kontsumoaren gizarteak eragin ikaragarria dauka ingurugiroaren hondamen etengabean. Horregatik, txiki-txikitatik hurbildu behar dira haurrak naturara, bizitzarako zeinen garrantzitsua den ikusi dezaten eta begirunez hartu dezaten. Ez dugu helburu handien atzetik ibili behar. Kontua, beraiengan jokabide positiboak sortu daitezen gaiarekin harremanetan jartzea da. Jokabide positibo horietako batzuk hauexek lirateke: gauzak alferrik ez galtzea, egunero darabiltzaten materialak zaintzea eta naturarekin armonian dagoen bizi osasuntsuak daukan garrantziaz jabetzea.

## 2.- Orientabide Didaktikoak

Haur Hezkuntzan dauden haurrak euren jakinmina garatzen hasten dira. Etengabe galderak egiteaz gainera, behatu, bilatu, esperimentatu... egiten dituzte gauzak.

Komenigarria ezezik ezinbestekoa ere bada adin honetako neska-mutikoak egoera errealekin harremanetan jartzea. Haien begiek errealitatea zuzen-zuzenean behatzeko aukera izan behar dute: landareak, animaliak, ura... Haien eskuek natura ukitzeko aukera izan behar dute: loreak, ura, lurra, animaliak. Esperientzia hauek, oso pozgarriak izateaz gainera, oso lagungarriak dira arlo honetako hezkuntz eginkizunari heltzeko orduan. Ez dugu ahaztu behar gure helburua neska-mutilek natura zaintzen eta errespatzen ikastea dela.

Arlo honetan proposatuko ditugun ekintzek, beraz, oso manipulatiboak eta ikusgarriak izan behar dute, oraindik ulertu ezin dituzten abstrakzioetatik erabat urrunduak, eta euren errealitatetik ahalik eta hurbilenak. Laminak, marrazkiak, ipuinak eta abar -beste arlo batzuetan ere oso baliagarriak direnak- erabiltzea lagungarri izango da, baina sekula ere ez gure ekintzaren ardatz gisa. Ekintza zehazteko, laburbiltzeko, kontatzeko... erabiliko ditugu, besterik gabe.

Jarraian aurkezten dugun lan eskema guztiz irekia da eta berau lantzeko kontuan hartu behar dira besteak beste: etapa honetako umeen maila ebolutiboa, inguru soziala (hiria, baserria), inguru naturala (mendia, itsasoa, alde euritsua, lehorra...) eta abar.

Lanaren ardatz nagusiarekiko (naturarekin harremanetan jartzea) osagarriak diren ekintzak ere egin ditzakegu. Esate baterako: igarkizunak, hitz korapiloak, kantuak, poesiak, jolasak, ipuinak eta beste asko. Guzti horiek oso interesgarriak izan daitezke gure ikasleengan ingurugiroarekiko begirunea eta naturarekiko maitasuna sortzeko. Izan ere, bi jokabide horiek oso hasiera ona dira kontzientzia ekologikoa duen kontsumitzaile moduan jokatzen hasteko.

## 3.- Eskema orokorra

NATURA

Hasiera txundigarria izan daiteke adin honetako umeentzat bi osteratxo egitea, bata, ondo zainduta dagoen hiriko parke batera -edo inguruko naturguneren batera- eta, bestea, paperez beterik edo kutsadura arrastoekin dagoenen batera. Edonola ere, aurretik *garbia* eta *zikina* kontzeptuak landu beharko ditugu zertxobait.

Osteratxo hori baliagarria izan daiteke zenbait hitz berri dagokion gauza konkretuari lotuta ikasteko: harria, lurra, lorea, zuhaitza, hostoa... Gauzaki horietako batzuk klasera eraman ditzakegu gure Naturaren Museoan ipintzeko. Irakasleak, kontu handiz, eta eskularruak jantzita kutsaduraren lagin batzuk hartu ditzake: zigarroak, karameloen estalkiak, freskagarrien ontziak...

Ingurune bakoitzean sortzen diren hotsak entzun ditzakegu eta bakoitza bereizten edo zerk sortzen duen asmatzen ahalegindu. Hots eta zarata horiek grabatzen baditugu, gero gelan errazago gogoratuko dugu gure osteratxoa. Baliabide horiez gainera, bideoa erabiltzen badugu, errealitatea interpretatzeko aparteko baliabide grafikoa izango dugu eskueran. Behin gelan gaudenean, didaktikoagoa da urratsak ordena honetan ematea: lehenengo museoko piezak behatzea, gero hotsen grabaketa entzutea eta azkenik bideoa ikustea. Horrela, aukera gehiago emango diogu irudimenari eta interesgarriagoa izango da euren konparazioen, ondorioen eta zentzumenez jasotakoen emaitzak behatzea.

Gelan landareak jartzen baditugu, gure laguntzaz, egunean talde batek ureztatu, zaindu, hitzegin eta abar egin diezaiela. Landareren bat ureztatu ezik zer gertatzen den ikusteko esperimenturen bat ere egin dezakegu.

Ahal dela, animali eta landareak euren ingurunean, baserrian edo haztegietan behatuko ditugu. Ez dugu zentzugabeko bilduma zaletasunik bultzatu behar, ezta landareak txikitzea eskatzen duen hormirudirik ere. Hostodun hormirudiak egin nahi baditugu, lurrera erortzen direnak edo inausketan kentzen direnak erabili ditzakegu. Argumentu bera erabiliko dugu gure Naturaren Museoan, kalterik egin gabe lorturiko gauzakiak baino ez baititugu ipiniko bertan.

Gaia sakondu ahala, Naturaren Museoa gero eta politagoa izango da. Hori aberasteko, landareak jarri ditzakegu -haurrek eurek ureztatuko dituztenak- eta baita pelutxezko animaliak, marrazkiak eta beste adierazpen artistiko batzuk

ere. Interesgarria izango da Naturak urtaroekin agertzen dituen aldaketak behatzea. Beharbada «altxor» txikiren bat lortuko dugu gure Museorako: loreak, fruituak, inausketako adarrak...

Egun bakoitzaren amaieran, gure ikasleek «NATURAREN LAGUNEN PEGATINA» lortu dezakete jokabide ekologistak erakutsi badituzte, hala nola, txorroak itxi, paperak paperontzira bota, argia itzali... Pegatina hauek geuk egin ditzakegu paper itsaskorrean marrazkiak eginez.

## URA

Ura oso garrantzitsua da Naturaren ikuspegitik. Are gehiago gure autonomi elkartean, haren falta sufritu behar izaten baitugu. Adin honetako haurrak urarekin harremanetan jartzea oso jostagarria izan daiteke. Urarekin eginiko jolasak oso aproposak dira etapa honetan. Ura aurrezteak duen garrantziaz eta bizitzarentzat funtsezkoa dela jabetu daitezen ahalegindu behar dugu.

Hasteko galde-erantzunen bidez uraren inguruko hainbat alderdi aztertu ditzakegu: «nolakoa da? zertarako erabiltzen da? nola eta zertarako erabiltzen da norbere etxean?...». Galde-erantzun hauek ez dute sekula ere urarekiko harreman zuzena ordezkatu behar. Haren ezaugarriak frogatu eta egiaztatu behar dituzte, eta somatu ahala deskribatu egin behar dituzte: «urak badu kolorerik, usainik, zaporerik...?» Landareak ureztatzean, ikusi ur gehiegik eta ur faltak zer eragiten duten.

Uraren aldaketak behatu, ikastetxeko aukeren arabera:

* Hartu ura eta berotu lurruna sortzen hasi arte. Kontu handiz ibili, ez utzi umeei ur irakinetara hurbiltzen. Ukitu ura apur bat hoztu denean. Begiratu estalkian geratzen diren ur tantak (estalkia gardena bada, hobeto).

* Sartu ontzi bat urarekin izozkailuan eta eduki bertan ura izoztu arte. Ukitu bero ala hotz dagoen ikusteko.

* Berotu izotza nola urtzen den ikusteko.

* Ura, izotza eta lurruna erkatu.

## ZABORRA

Gure inguruak, dudarik gabe, adibide asko eskainiko digu gai hau lantzeko. Egoera hauek abiapuntutzat hartuta, solasaldi bat egin dezakegu gelako haurrekin: «zer egiten dute karameloaren paperarekin? zertarako dira paperontziak? non botatzen dute zaborra euren etxeetan?» Hauek eta antzerako beste galdera batzuk baliagarriak izan daitezke zaborraren inguruko hainbat alderdi komentatzeko.

Zaborraren inguruko hainbat kontzeptu jorratu beharko genituzke. Etxeko zaborraz, eskolakoaz, kalekoaz, basokoaz... hitzegin: «zer gertatzen da gure gelan...? gure eskolan...? gure hirian?». Jabetu daitezela leku garbiez eta zikinez: «zeintzuk ditugu nahiago? zergatik? etxean edukitzen al dugu zaborrik zoluan? eta kalean? zergatik? botatzen dugu zaborrik lurrera? zein zabor mota?...».

Behin zaborraren kontuaz jabetzen dire-

nean, kaleko, etxeko, basoko... garbitasun arauez hitzegin dezakegu (ez paperik bota, ez surik egin debekua dagoen lekuetan, paperontziak erabili, etab), edo zabor bilketaz edo estoldez eta haien zereginaz...

Proposatu daitekeen beste ekintza konkretu bat zera litzateke: umeak, eskolatik etxera doazela, zaborra uzteko lekuetaz ohartu daitezela (paperontziak, zabor edukinontziak, obretako eta lantegietako zaborra, kontrolgabeko zabortegiak eta abar); eta, orobat, gurasoei laguntzea eskatu deizaiekegu, zaborra ateratzen doazenean edo beirakiak beiraontzietara daramatzatenean, etab.



Zaborra horrexetarako egokituriko tokietan uzteak duen garrantziaz jabetu daitezen eta bereziki paperontziak erabiltzeko ohitura hartu dezaten jolas bat proposatzen dugu:

**«Nolako zaborra, halako ontzia».**

* Irakasleak haurraren aurrean eta bere laguntzarekin, hainbat paperontzi egingo ditu zenbait ontzi birziklatuz.

* Haurrek buru belarri parte hartu behar dute paperontzia apaintzen eta bakoitzari berezitasun bat ematen.

* Gero, denek, zabor mota bakoitza dagokion zakarrontzira bota behar dute: papera, plastikoa, aluminio papera, ontziak... bakoitza bere lekuan. Ez dira zaborrak nahastu behar.



* Paperontzi horietako batzuk ikastetxeko beste leku batzuetan jarri ditzakegu beste ikasle batzuek ere ekintza honetan parte hartu dezaten.

Batzen ditugun hondakinekin zerbait egiten saiatu behar dugu edo, bestela, birziklatuko duten lekuren batera eraman (nahiz eta guztiz sinbolikoa izan), haien balioaz ohartu daitezen. Esate baterako, paperezko monigote bat egin dezakegu. Oso interesgarria da birziklapen tailerrean ontziak erabiltzea, txotxongiloak, jostailuak eta beste hainbat tramankulu erakargarri egin baititzakegu. Oso kontuan izan behar dugu gure ikasleen adina, ekintzak errazak izan daitezen eta ontzi eta erremintekin ezbeharrik izan ez dezagun.



## DETEKTIBE EKOLOGIKOAK

Honelako ohiturak sartu behar dizkiegu haurrei: argiak itzali, txorroak itxi, paperak paperontzira bota... Horretarako zera ikusarazi behar diegu: txorroa zabalik edo argia piztuta uzten den bakoitzean dirua alferrik galtzen dela eta natura hondatzen ari garela.

Naturaren alde egiteko euren etxeetako ur eta argiaren kontsumoa zaindu behar dute. Bai etxean eta bai ikastetxean begiratu egin behar dute ea ura alferrik galtzen duten; eta inongo premiarik gabe, txorroa zabalik, argiak eta telebista piztuta edo paperak lurrean botata uzten dituenari ohartarazi egin behar diote.

Ekintza guzti hauek, eta beste asko, oso probetxugarriak izan daitezke txiki-txikitatik umeak kontsumitzaile ekologiko bezala hezteko.



# UNITATE DIDAKTIKOAK
## ETA KONTSUMOAREN HEZKUNTZA

*Luis Mª Larrieta. Errekaldeko PAT*

Beharbada unitateak ez dira lan egiteko modurik erabiliena, beharbada itxura tekniko samarra dute, hotza eta itxurakeriarekin lotua, beharbada «tramankulu pedagogikoak» dirudite, formalak eta ez hain erabilgarriak, beharbada aurretiazko ahalegin handiegia eskatzen dute azkenean eskaintzen duten emaitzarako, beharbada bapatekotasuna kentzen diete garapen didaktikoei, beharbada...

Hainbat alderdi txar aurki diezaiokegu gelako jarduna antolatu eta diseinatzeko modu honi. Baina inork ere ezin du ukatu unitate didaktikoa asko eta askorentzat baliagarria dela, lana errazten duela, antolatzen laguntzen duela eta eraginkortasuna handitu egiten dela, are gehiago kolektiboki lan egin ezkero edo gai honetan hasi berria izan ezkero.

Hargatik, Kontsumorako Hezkuntzan aspaldi hautatu zen material didaktikoa unitate didaktikotan aurkeztea, hain zuzen ere baliapide pedagogiko aproposa baita Kontsumorako Hezkuntza Derrigorrezko Irakaskuntza osoan zabaldu eta ezartzeko. Unitate Didaktiko horiek ikasturte honetan bertan argitaratuko direlakoan gaude[1].

Unitate horietan prestaturiko lanak Haur Hezkuntzarekin loturiko hiru titulu jorratzen ditu: «Zukuak», «Uuuuura!» eta «Segurtasuna etxean». Berauetan, hurrenez hurren, elikadura, uraren erabilera eta kontsumoa eta etxeko arriskuen prebentzioa lantzen baita.

Diseinu eta esperimentazio lan hauek frogatu dute Kontsumoaren Hezkuntza erabat bideragarria dela Haur Hezkuntzan, beti baitago ikasi daitekeen arloren bat kontsumoaren edozein eremutan, ikasleak etxean bertan bizi dituen eremuak baitira, eta beti baitago ikasleek eremu horietan ulermena eta adierazpena aberasteko aukera.

Beste gai batera pasatuko gara. Materialen ikerketak unitate didaktikoak diseinatzeko gako batzuk definitzeko aukera eman digu. Gako horiexek komentatuko ditugu jarraian. Nola diseinatu daiteke unitate didaktikoa Haur Hezkuntzako ikasle batentzat?

[1] Kontsumo Zuzendaritzak agindutako ikerketa bati buruz ari gara. Euskal Autonomi Elkarteko 4 ikastetxek hartu zuten parte 90/91 eta 91/92 ikasturteetan. 1993aren azkenerantz argitaratzekoak dira, Eusko Jaurlaritzako Pedagogia Berritzeko Zuzendaritzaren laguntzaz.

Lehenengo zirriborro batzuk egin genituen, eta unitategai horiek inongo ordenarik gabe eztabaidatu eta osatu ondoren sortu ziren unitate didaktiko hauek. Hala ere, euren aurkezpena ikusi ondoren, norbaitek pentsa lezake eskema ordenatu eta hierarkiaduna dutela, hasietarik bertatik.

Badakigu irakasle bakoitzak bere bideari heltzen diola unitateak prestatzeko orduan. Horregatik, ez dugu prozedura bakar bat ezartzen. Dena dela, unitate didaktikoa eratzen duten osagai guztien arteko hartu-emanak eta menpekotasunak zeintzuk diren azaltzen dugu. Gure jardunean beti atal hauexek izan ditugu gogoan:

**A. Unitate Didaktikoaren izenburua:**
beti ahalegindu gara izenburu erakargarria aurkitzen klasean zein kanpoan garatzeko aukera handiak ematen dituen gai bakoitzari.

**B. Aplikatzeko kontestua:**
edozein unitate didaktiko diseinatzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu aurretiaz hura aplikatzeko kontestuaren ezaugarriak zehaztea, unitatea ikasleei ahalik eta gehien egokitu ahal izateko eta parte hartzea ere taldeari egokitua izateko. Unitate didaktikoa hartu behar dutenak nortzuk eta nolakoak izango diren gogoratzeko unea da, hau da, kontuan hartu behar dugu non eta noiz aplikatuko den, izenburua kontestuari atxikia den ala ez, inguruak eskaintzen dituen baliabideak zeintzuk diren, ikastetxearen hezkuntz egitasmoari eta curriculumari nola egokitzen zaion...

**C. Helburuak:**
alderdi hau ondo zehazteak garrantzi eta ondorio handiak dituela konturatu gara. Hiru arrazoigatik. Lehenik, horrexek gidatzen duelako edukinak hautatzeko urratsa; bigarrenik, irakaskuntza/ikaskuntzako ekintzak helburuen arabera hautatzen direlako (helburu bakoitza gutxienez ekintza batekin lotzen baita); eta hirugarrenik, ebaluatzeko orduan derrigorrezko erreferentzia (eta bakarra) delako.

Beraz, hiru oinarri horiek beti gogoan genituela (unitate guztietan), etapa honetako dokumentu curricularretan azaltzen diren helburu nagusiak hautatzen hasi ginen. Hezkuntz helburuek (horiexek ziren benetan gure lana gidatzen zutenak) prestaketa handiagoa eskatzen zuten:

* Bururatu ahala esaten ziren diseinuan parte hartzen zuen jendearen irizpideen arabera egokiak zirenak, beti ere, kontsumoaren arloko hezkuntzarako interesgarriak ziren ikaskuntzak argitasunez formulatzen zituztenak.

* Kontzeptuaren, prozeduraren edo jokabidearen arloko ikaskuntzak bultzatzen zituzten ala ez kontuan hartuta, ordenatu eta aztertzen genituen helburuak. Normalean, blokeen arteko desoreka zela eta, berregokitu egin behar izaten genituen eta osagai gutxien zituen blokean helburu gehiago sartzen genituen.

* Unitatea diseinatzeko prozesua heldu samar zegoenean, berriro aztertzen eta aldatzen genituen helburuak. Izan ere, irakaskuntza-ikaskuntzako ekintzak zehaztu ondoren, beti agertzen zen ekintzaren bat, helburu bati ere ez zegokiona eta garrantzitsutzat jotzen genuena. Beraz, helburu batzuk berraztertu

egiten genituen edo berriak erantsi.

Eta azkenik, eta unitate didaktikoa aberasteko asmoarekin, curriculumaren ikaskuntzako eremuetako helburuak berrikusten genituen eta hezkuntzaren helburuak osatu.

Adibide moduan, «Zukuak» deritzon unitate didaktikoko helburu didaktiko nagusiak erakutsiko dizkizuegu. Irakaskuntza-ikaskuntzako ekintzen ondorioz, haurrek helburu hauek lortuko dituztela espero dugu:

1. Zenbait fruta eta barazki bereiztea eta haien izena ikastea.
2. Haiek erosi eta lortu daitezkeen lekuak ezagutzea.
3. Zukuen lehengaia, gehien bat, fruta dela konturatzea.
4. Produktu naturalak eta artifizialak bereiztea.
5. Koloreaz, zaporeaz, itxuraz, presentazioaz... gogoeta egitea.
6. Zukuen iturburua zein den ulertzea.
7. Fruta jateko ohiturarik duten ala ez hausnartzea.
8. Fruta eta zaporeen arloan duten ezagutza aberastea.
9. Zukuak egiten ikastea.
10. Fruta eta zukuak gozokiak baino gehiago estimatzea.
11. Jateko orduan higienea zaintzea (jan aurretik fruta garbitzea).
12. Zukuek osasunari mesede egiten diotela jabetzea.
13. Fruta eta gauza naturalak artifizialak baino gehiago estimatzea.
14. Zuku naturalak gogokoago izatea artifizialak baino.

## D. Hautaturiko edukinak:

urrats honek ez du zailtasun handirik izaten. Klasean jorratzeko edukinen hautaketa nahiko arin burutzen zen urratsa izaten zen. Nahikoa zen ikuspuntu hauek kontuan izatea:

* Hautaturiko izenburuak berak markatzen du zein eremutan murgilduko garen. Zenbait edukin berez-berez irtetzen dira kontsumoaren eremuan sartu ezkero.

* Inguruak (espazioak eta denborak) aukera jakin batzuk eskaintzen ditu. Horiexen artean hautatu behar izaten da.

* Aurreko urratsean finkaturiko helburuek berez dakartzate zenbait edukin, helburuak garatu ahal izateko beharrezkoak direnak.

* Gelan jorratzen diren Ikaskuntza Eremuak.

* Kontzeptu, prozedura eta jokabidearen arloko edukinen arteko oreka gordetzea.

Kontuan izan behar da helburu batzuk jorratzeko hartu daitezkeen edukinak asko direla; hargatik, eta gure harridurarako, sarri-sarri egin behar izan genuen urratsetako bat edukinak murriztea eta egokien eta aproposentzat jotzen genituenak baino ez uztea izaten zen.

Jakina, edukinak hautatzeko orduan, beti hartzen genituen ikasleen adinari ondoen egoki-

tzen zitzaizkion haiek, batez ere euren esanguratasun logiko eta psikologikoa kontuan hartuta.

Beste adibide bat. «Zukuak» deritzon unitate didaktikoan, lehen aipatu ditugun helburuak lortzeko, honako edukin hauek jo genituen egokientzat:

* Elikaduraren egiturarekiko eta funtzionamenduarekiko errespetua: fruta motak eta izenak, saltokiak, frutaren forma, kontsumitzeko erak eta zukuak lortzeko prozesuak.

* Kontsumitzaileak, erabiltzaile den aldetik, ezagutu egin behar ditu kontsumo erak, ohiturak eta erosteko moduak; eta fruten eta zaporeen ezagutza izan behar du.

* Kontsumitzaileengan errotu behar ditugun aukera pertsonalen artean bat zukuak egitea da eta zukuek gozokien aldean dituzten abantailez jabetzea beste bat.

* Kontsumoaren arloko zenbait jokabide aurrera ateratzeko, higiene eta osasun arloko ohiturak landu behar dira eta, halaber, gauza naturalen onespena artifizialen ondoan.

**E. Irakaskuntza/ikaskuntzarako ekintzak:** Behin puntu honetara heldu ezkero, betebehar bat daukagu: dagoeneko finkatu ditugu hezkuntzaren helburuak eta edukinak; beraz, orain ekintzak prestatu beharko ditugu (edukiez baliatuz, ikasleei helburu horiek eskuratuko dizkieten ekintzak):



*Arrasateko "San Andres Eskola"*

Ez dirudi zaila denik: irakaslearen esperientzia horri erantzuteko adinako iturri sakona baita. Gu gure aldetik, gure esperientziarekin, unitate didaktikoa hobetzen zuten hainbat gauzez jabetu ginen. Adibidez:

* Lehen ekintzak motibatzailea izan behar du eta interes berezia sortu behar du, gero bide ikertzailea jarraitzeko gogoa pizteko.

* Lehen ekintzatzat, garrantzitsua jotzen genuen aurretiaz gai honen inguruan zituzten ideia edo kontzeptuei buruzko ikerketatxo bat egitea, abiapuntua zein izan behar zen jakiteko, ikasle guztien lexikoa eta aurrezagutzak berdintzeko, gauzak nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten azaltzen duten hipotesiak egiteko...

* Klaseko irakaslearen eginkizuna funtsezkoa da aprendizaia esanguratsuak bultzatzen direnean, haurrek erantzun eta hipotesien soluzioa euren kontura aurkitu behar baitute. Sarritan, ohartu gara, irakasleak ezin izaten duela egon erantzun egokia eman gabe edo errealitatea azaldu gabe, eta era horretara, kendu egiten diete haurrei erralitatearen azalpen bat gauzatzeko eta euren mundu kontzepzioa eraikitzeko aukera.

* Gelan egingo den guzti-guztia aurrez finkatzea ez da oso komenigarria. Klaseak berak markatzen du, kasu bakoitzean, nondik jo behar den, nolako erritmoarekin, zein edukinetan geratu behar den... Hargatik, unitate didaktikoan programaturiko guztia malgutasunez erabiltzea aholkatzen dugu.

* Pentsamendua ordenatu eta elaborazio mental konplexuago eta osotuagoetara iritsi ahal izateko, oso interesgarriak dira, besteak beste: ipuinak (marrazkidunak, jakina), ikertzen ari diren erralitatea globaltasunean erakusten duten lekuetara ikustaldiak egitea, «adituek» (hau da, operarioek, zaletuek, profesionalek...) emaniko hitzaldi eta harremanak, dramatizazioak, tramankuluren bat egitea, prozedurari loturiko edukinak lantzea, esperimentuak egitea (zentzumenekin lanegitea), norbere ingurunean kokaturiko ikaskuntza (etxea, kalea, eskola), tailerrak... Kontsumoak aukera ikaragarriak eskaintzen ditu arlo horietan.

Unitate didaktikoko irakaskuntza eta ikaskuntzako ekintzen zerrenda prestatu ondoren, guzti horien berrazterketa egiten genuen, bakoitzak jorratzen zuen hezkuntz helburua kontuan hartuta. Behin baino sarriago konturatu ginen helbururen bat garatu gabe utzi genuela edo ekintza zoragarriren bat antolatu genuela programaturiko helburu bati ere ez zegokiona. Baina egokipenen bat egiten genuen ondoen irizten genion eran.

«Zukuak» deritzon unitate didaktikoaren adibidearekin jarraitzen dugu. Bertan sarturiko ekintzak honako hauek dira:

1. «Fruta otzara bat gelan»: gaia agertarazten du, lehenengo galderak eta iritzi bategitea eragiten ditu eta aurretiaz dituzten ideiak agertzen dira...

2. «Gelako dialogoa»: dialogoa eta hartu-emana sistema bihurtzen dira.

3. «Dendan ikusten eta erosten»: inguruneko ikerketen hasiera.

4. «Etxean ikertzen»: ikerketaren eremua etxera zabaltzen dute, galderak eginez eta gauzak behatuz.

5. «Frutaren inguruko iritzien bategitea»: dendako osteratxoan eta etxean ikasitakoak besteekin konpartituz, aberastu egiten da ikastea.

6. «Fitxa bidezko ekintzak»: banaka, gogoeta egiteko. Fitxa bidez, ideiak eta esperientziak antolatzeko ariketak dira.

7. «Ipuina: Merlita, Golosi y su amigo Dimbo»: fruta eta zukuak fikziozko mundu batean aurkezten dituen istorioa.

8. «Fruta arboladiak ikustera joatea»: frutaren jatorria aurkezten du.

9. «Begiak itxita dastatzea»: zaporeak bereizteko jolasa.

10. «Zukuen tailerra»: gelan hainbat zuku egin eta edatea.

11. «Hormirudi erraldoia»: hormirudi erraldoi baten bidez fruta eta zuku naturalak eta zuku artifizial eta gozokiak sailkatuko ditugu.

12. «Inurrien jolasa»: ipuineko inurriek bezala, negurako janariak bilduko dituzte.

13. «Marrubiak landatzea»: gelan fruta hazteko esperientzia.

14. «Jolasak eta jolasak»: ardatz nagusitzat fruta duten jolasen zerrenda.

### F. Ebaluazio ekintzak:

unitate didaktikoak garatu ahala, saiatu gara zenbait ebaluazio ekintza sartzen irakaskuntza/ikaskuntzako ekintzen artean, ikaskuntza prozesua nola doan zehatz aztertzeko aukerak izateko, eta era horretara, baliabide pedagogiko hau ikasleen ezaugarri eta premietara moldatu ondoren, prozesua hobetu eta unitatea bide egokiagoetara bideratzeko.



*Arrasateko "San Andres Eskola"*

Hori lortzeko asmoarekin, zenbait ebaluazio ekintza pentsatu eta prestatu ditugu. Hona hemen ekintzak egiteko kontuan hartu ditugun elementuak:

* Horiek egiteko behar diren erreminta eta tresnak.

* Ebaluaketa (bai informazio bilketa eta bai informazioari buruzko gogoeta) egiteko uneak. Hainbat aldi utzi genituen berariaz hasierako ebaluaketa, prozesuarena eta azken ebaluaketa egiteko.

* Helburuetan finkaturiko ikaskuntzak zenbateraino bereganatu dituzten neurtzeko irizpideak zehaztea. Kasurik gehienetan irizpide nagusia progresioa izan da.

Ardura berezia jarri dugu helburu guztiak ebaluatu daitezen eta hainbat bitartekoz baliatu gara helburu batzuk gehiegi eta beste batzuk gutxiegi ebaluatu ez daitezen.

Hala, bada, Haur Hezkuntzan ondorengo ebaluazio ekintzez baliatu gara:

— Ikaslearen ikaskuntza ebaluatzekoak:

* Ikerketa-ekintza bat, taldeka edo banaka, gaiaren inguruan aurretiaz dituzten ideiak agertarazteko aukera emango duena.

* Irakasleak etengabe erabili behar du behaketa erregistroa eta bertan jasoko ditu, taldeka zein banaka, hainbat ekintzatan eta fasetan, irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan agertu diren gorabeherak, eta finkaturiko hezkuntz helburuekin duten zerikusia. Batik bat, behaketan zehar honako datu hauek batzen genituen:

- Helduekiko autonomia.
- Adin berekoen arteko harremana.
- Adin berekoen arteko gatazken konponbideak.
- Bakoitzaren jakinmina eta interesa.
- Iniziatiba.
- Segurtasuna, konfidantza eta nortasunaren oreka.

* Banaka eta taldeka eginiko produkzioen analisia, ikasitakoaren adierazle gisa hartuta.

— Unitatearen funtzionamendua ebaluatzekoak:

* Irakaslearen azken txostena, gero unitate didaktikoa epaitzeko balioko duten datu eta informazioak biltzeko. Horrela, praktika pedagogikoa hobetzen joatea lortuko dugu.

**Materialari buruzko eranskina:** unitate didaktiko guztietan bada atal bat materiala, fitxak, dokumentazioa, baliabideak eta abar eskaintzen dituena. Horien bidez, unitate didaktikoa hobeto gauzatuko dela eta irakaslearen lana erraztu egingo dela uste da.

Gure unitateetan bi material mota daude ikasleentzat: fitxak eta ipuinak (euren irudiekin). Zera esan behar dugu: fitxetan baztertu egin dugula animismoa eta ipuinetan, ordea, ez. Uste dugu

irakasleak saihestu egin behar duela errealitatea irudi animista eta deformanteen bidez azaltzeko tentaldia, jokabide hori nahiko «onetsia» bada ere haur literaturan. Ipuinetan onargarria eta baliagarria dela uste dugu eta ez duela ikaslearen gogoan irudi distortsionaturik zabaltzen (behintzat ez kaltegarria izateko punturaino irauten duenik).

Unitate didaktikoen beste atal bat ebaluaziorako tresnena da. Bertan zera ipini dugu: ideien sondeoa egiteko dokumentazioa (oharrak eta adibideak), irakaslearen behaketarako erregistro eredu bat, eta unitateari buruzko txosten-galdeketa bat irakaslearentzat.

Behin urrats guzti horiek prestatu eta behar diren baliabideak bideratu ondoren, hainbat galderaren erantzuna lortu dugula esan dezakegu:

* ZER irakatsi (helburuak eta edukinak).

* NOLA irakatsi (irakaskuntza/ikaskuntzako ekintzak).

* ZER eta NOLA ebaluatu (ebaluazioaren helburu eta ekintzak).

Orain, unitatea abian jarri eta praktikaren eta lanaren ebaluazioaren bidez baino lortu ezin diren ekarpenekin osatzea besterik ez dugu egin behar. Eta lana egin ahala egiten diren azken ukituak (fitxak, ipuinak, kantuak, materialak...) hurrengorako gordeko ditugu. Eta dagoeneko badugu gelako programazioa osatzen duen unitate didaktikoetako bat prest, ziur aski, aurrerantzean aldaketa handiegirik gabe erabili ahal izango duguna.



*Arrasateko "San Andres Eskola"*

# IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA KONTSUMO GAIETAN

*Luis Mª Alvarez. Eskoriatzako Irakasle Eskola*

## SARRERA:

Zuzenean gaian sartu aurretik, curriculum orokorraren arloko bi gauza komentatu nahi nituzke, irakasleen prestakuntzari heltzeko behar den ikusmolde egokia horiexen menpe daudela uste baitut:

1.- Erreformaren ondorioz, Kontsumorako Hezkuntza edo Kontsumitzailearen Hezkuntza deritzona zeharlerroetako bat bihurtu da. Baina, izan zer dira, zehatz-mehatz, zeharlerro horiek? Ba, dirudienez, arloetako edukin curricularraren tratamendu didaktikoa gauzatzeko behar diren egiturak biltzen dituzte zeharlerro horiek. Halaber, badirudi arloak edukin curricularrak egituratzeko erak direla. Edukin curricular horiek lantzeko eretako bat (garrantzitsuenetariko bat) zeharlerroak dira. Gure kasuan zeharlerroa Hezkuntza Kontsumerista da. Dena dela, argi utzi behar dugu Kontsumoa Oinarrizko Curriculumaren Diseinuan sartzeko arrazoi nagusia kontsumoaren hezkuntz balioetan bilatu behar dugula («Zeharlerroak (...)-rako hezkuntzak dira») eta ez hainbeste (edo bigarren maila batean) edukin curricularrak didaktikoki lantzeko edo tresna izateko dituen balioetan.

2.- Aipatu nahi dudan bigarren alderdia Kontsumitzailearen Hezkuntzaren helburuei dagokie. Norbaitek pentsa lezake hezkuntza horren helburua ikasleari ahalik eta informazio kopuru handiena ematea dela. Baina, eskolan informazioak prestakuntza sortzen ote du?

Badirudi Kontsumoaren Hezkuntzako helburu nagusia arazoak konpontzeko gaitasunarekin loturik dauden kontestuetan kokatzen dela. Egunero-egunero kontsumo gizarteak planteatzen dizkigun arazo horien artean hauexek dira batzuk: eskaintzen artean erabakitzea, ontzi motak hautatzea, esnea erostea, publizitatea... Badirudi, halaber, arazo horien erantzuna erabat lotua dagoela "erabakiak hartzearekin", eta arduran, elkartasunean, kritikan eta arrazoian oinarrituriko aukeraketarekin. Erantzunik ez izatea, beraz, "hausnarketa gabe jokatzea" da, hots, kontsumismoa.

Didaktika arloko planteamendu hauek zerikusi

handiagoa dute prozesuetan oinarritzen den eskola lanarekin, emaitzetan oinarritzen denarekin baino. Gelan, esate baterako, analisi konparatiboak lantzeko ekintzaren bat egin nahi bada, garrantzitsuagoak dira erabaki, analisi eta erkaketa prozesuak garatzea, ez dakit nongo kontsumitzailearen babeserako aldizkariak dakartzan analisi konparatiboen emaitzen zehaztasuna zenbaterainokoa den jakitea baino.

Sarrerako ikusmolde hau argitu ondoren, irakaslearen prestakuntzaren gaia sakonduko dugu. Bi aldi bereiziko ditugu: irakaslegaien lehen prestaketa-aldia eta lanean diharduten irakasleen prestaketa-aldia.

## IRAKASLEGAIEN PRESTAKETA ALDIA

Helburu nagusia "Hezkuntza Kontsumeristaren Didaktika" jorratzea da. Berriro ere, sarreran aipaturiko kontuetariko bati heldu behar diogu. Irakasleen lehen prestakuntzan erabiliko dugun «teknologia» prozesuetan oinarritu behar da («irakatsi diguten moduan irakasten dugu»). Informazioa, aldiz, prozesu horien lagungarria izango litzateke, ez ardatza.

Irakasle Eskoletako ikasleak helduak dira. Beraz, horientzat informazioak prestakuntza eragiten duen elementu bat izan behar du.

Hezkuntza Kontsumeristaren arloko prestakuntza egokia izan dadin, era orekatu batean nahastu behar dira didaktika eta informazioa.

Informazio arloan lantzeko moduko programagai bat aurkeztuko dugu jarraian:

1.- Publizitatea.
2.- Elikadura.
3.- Etxebizitza.
4.- Jolasak, jostailuak eta eskolako materiala.
5.- Ekologia eta kontsumoa.
6.- Dirua eta banketxeak.
7.- Erosketak.
8.- Zerbitzu publikoak.
9.- Osasuna eta segurtasuna.
10.- Aisia eta denbora librea.
11.- Aseguruak.
12.- Luzarorako ondasunen erosketa.
13.- ...

Didaktikari dagokionez, bloke hauen inguruan garatu daiteke programa hori:

1.- Kontsumitzailearen Hezkuntza. Historia eta ikuspegi orokorrak
2.- Hezkuntza Kontsumerista curriculumean txertatzea. Helburuak.
3.- Zehartasuna eta arloak.
4.- Kontsumitzailearen Hezkuntzarako Teknika metodologikoak.
5.- «Arrastoa jarraitzea».
6.- Eskolan produzitzea.
7.- Ekintzen egitarauak.

Lanerako bi bide hauek osatzeko (eta lehen aipaturiko prozesuen arloari koherentziaz heltzeko) unitate didaktikoren bat atontzea komeni zaigu.

Ikusi daitekeenez, gai-zerrendak lau-bost kredituko bi ikastaroko curriculuma prestatzeko adina material eman dezake.



## LANEAN DIHARDUTEN IRAKASLEEN PRESTAKETA ALDIA:

Orohar, edukinei dagokienez, ez da aldaketa gehiegirik planteatzen, aurreko prestaketaren aldean. Hala ere, zenbait aldaketa egiten dira prestakuntzarako ekintzen diseinuan. Ikusi ditzagun batzuk:

- Sentsibilizazio ikastaroak. Ordu gutxikoak dira (3-6 ordukoak). Halakoetan zeharlerroen sarrera-aurkezpen bat egiten da.

- Ikastaro monografikoak (20-30 ordukoak). Bertan bai informazioaren, bai didaktikaren arloak jorratzen dira. Halaber, ahalik eta bibliografiarik eta informaziorik gehien ematen da material didaktikoen inguruan.

- Ikastaro trinkoak. Goizez informazioa lantzen da. Alderdi didaktikoa, aldiz, proiektu globalizatu baten barruan jorratzen da, normalean arratsaldez. Proiektu horretan era praktikoan aplikatzen da Kontsumitzailearen Hezkuntzako metodologietakoren bat. Ikastaroen ezaugarri horiek direla eta, barnetegi erara antolatzen dugu. Egia esan, ez dugu sekula lortu ikastaroa klase garaian, irakasleak liberatuta, egiterik eta, horregatik, oporraldietan antolatzen ditugu (izan ere, gauzak norbere borondatez egitea beti izan da jokabide garrantzitsua Hezkuntza Kontsumeristan).



*Arrasateko "San Andres Eskola"*

## ONDORIOZ:

Amaitzeko, zeharka gai hau ukitzen duten zenbait alderdi nabarmendu nahi ditut:

— Prestaketa aldietan parte hartzen duten irakasleek, gelan kontsumoa jorratzen duten hezitzaileak izan behar dute eta ez erreferentzia teoriko hutsak (nahiz eta bikainak izan) dituzten pertsonak.

— Kontsumo arloko Zuzendaritzek garrantzi handia izan dute orain arteko irakasleen prestaketa dinamizatzeko orduan.

— Prestaketaren ondoren, ikastetxeko egitasmo curricularrean Hezkuntza Kontsumerista sartzeko asmoa duten irakasleen prestaketari eta lanari arnasa emateko, material didaktikoak sortzeko premia dago.

## POSTGRADUAK

Azken urteotan, beste ikastaro mota bat agertu da, lehen aipatu ditugun prestaketa aldien gainetik dagoena: **Kontsumitzailearen Hezkuntzarako Didaktika Postgraduak.** Espezializazio ikastaroen egitura dute eta sakonki jorratzen dituzte informazioa eta prestakuntza. Ikastetxeetan zeharlerroak dinamizatzeko ardura duten hezitzaileentzat egokiak direlakoan gaude. Ikastaro hauek 250 bat ordu irauten dute eta kutsu teoriko nabaria dute.



## BIBLIOGRAFIA DEL INSTITUTO NACIONAL DEL CONSUMO

**ALVAREZ MARTIN, N.: "La pelota de Marta". Instituto Nacional del Consumo. Madrid, 1988.**

* 3tik 7 urtera bitarteko haurrentzat idatzitako lana. Laguntzaile didaktiko izugarri ona da, haurra, txiki-txikitatik kontsumitzaile kritiko, arduratsu eta egungo kontsumo-gizartearekiko solidario hazteko.

**ALVAREZ MARTIN, N. y ALVAREZ GUEREDIAGA, L.M.: 2 tomos "100 talleres de educación del consumo en la escuela". Instituto Nacional del Consumo. Madrid, 1987.**

* Material didaktiko hau, Kontsumoaren Institutu Nazionalaren (INC) osasun- eta kontsumo-hezkuntzari buruzko aurreko argitalpenen jarraipena da. Eskolan erabil daitezkeen lan-teknika ezberdinak agertu nahi ditu; teknika horien helburuak taldearen egiturak, mailak, adinak etab.ek baldintzatzen dituzte. Tailer horiek, ez dituzte jokaera jakinak ezarri nahi haurrak kontsumo alorrean problematikoak diren egoera edo balizkoekin kontaktuan jartzea baizik, horiek irtenbidea eman diezaieten.

**ALVAREZ MARTIN, N. y ALVAREZ GUEREDIAGA, L.M.: 2 tomos Euskara. "100 tailer, kontsumoari buruzko hezkuntza eskolan egiteko". I.N.C. Gobierno Vasco.Madrid, 1987.**

* Kontsumoaren Institutu Nazionalaren atalean aipaturiko materiala, bereziki Euskal Herrirako argitaratua, euskaraz.

**ALVAREZ MARTIN, N. y ALVAREZ GUEREDIAGA, L.M.: "Talleres de educación del consumo en la escuela". Dirección General de Consumo Castilla-La Mancha, I.N.C., 1988.**

* «100 talleres de Educación del Consumo en la escuela» argitalpenaren material didaktiko-bildumakoa da. Kontsumoko haur-istripuen arriskuak prebenitzeko helburua du.

**ALVAREZ MARTIN, N. y ALVAREZ GUEREDIAGA, L.M.: "El consumo va a la escuela". Editorial Laia. Barcelona, 1988.**

* Kontsumitzailearen Hezkuntzaren didaktika orokorrari buruzko liburua. Bertan, kontsumo-gizartea definitzen duten ildo nagusiak, kontsumitzailearen heziketaren historia, ildo metodologikoak eta lanareak deskribatzen dira, adibide zehatzak eta eskema irekiak emanez. Hezkuntz maila guztietan da baliagarria.

**CIUDAD MAESTRO, E.: "Perspectivas sobre educación del consumidor". Instituto Nacional del Consumo. Madrid, 1991.**

* Liburu honek, kontsumerismoaren eta mugimendu honen Espainiako zein atzerriko historia batzuei buruzko informazio dokumentatuaz gain, esparru legala eta kontsumitzailearen babeserako Administrazio Publikoen betebeharra eskaintzen ditu; azkenik, ikasleek kontsumitzaile arduratsuak izaten ikas

dezaten lortzeko interbentzio-eredu baten planifikazioan eta eboluzioan sakontzen du.

**F.E.A.C.C.U.: "La seguridad infantil una obligación". Federación Española de Asociaciones de Amas de Casa, Consumidores y Usuarios. Madrid.**

* Haurrek etxean izaten dituzten istripuak prebenitzea da liburuxka honen xedea.

**GARRIDO, L. y SEGARRA, I.: "Educación para la salud: La tierra nos alimenta a todos (I)". E.M.E.S.A. y Editorial Magisterio Casals. Barcelona, 1992.**

* Oinarrizko Irakaskuntzako lehen ziklorako Osasun-Hezkuntzari buruzko material curricularra. Mota askotako ideiak ematen ditu, baina batez ere, arkatzez eta paperez egiteko ekintzak.

**GARRIDO, L. y SEGARRA, I.: "Educación para la salud: Hacer ejercicio proprociona bienestar (II)". E.M.E.S.A. y Editorial Magisterio Casals. Barcelona, 1992.**

* Oinarrizko Irakaskuntzako lehen ziklorako Osasun-Hezkuntzari buruzko material curricularra. Mota askotako ideiak ematen ditu, baina batez ere, arkatzaz eta paperaz egiteko ekintzak.

**I.N.C.: "La seguridad en los juguetes". Consejería de Salud, Junta de Andalucía, 1990.**

* Materialak bi atal ditu: lehenean, jostailuen segurtasunari buruzko arau orokorrak jasotzen dira, eta bigarrenean, Kontsumorako Institutu Nazionala (INC) "100 Talleres de educación del consumo en la escuela"n argitaraturiko materialetik ateratako jostailuei buruzko tailerrak.

**JAIO IBARLUZEA, J. y otros: "La Educación del Consumidor en la Escuela". Coop. Eroski y el Instituto Nacional del Consumo. Madrid, 1984. Ultima edición, 1989.**

* Materialak 2 zati ditu: lehenean, Berrizko Herri-Eskolako esperientzietan oinarriturik diseinaturiko programaketa-proiektu bat aurkezten da; bigarrenean, Euskal Herriko eta Valentziako hainbat eskolatan sortu eta esperimentaturiko proiektuak azaltzen dira. Hezkuntz maila guztietan erabil daiteke.

**LARRIETA, L.M. y OTROS: "Los proyectos en la educación para el consumo en la escuela". Dirección de Consumo, Gobierno Vasco. Bilbao, 1990.**

* Materialak bi ale ditu: lehenengoan, gaia, ildo metodologikoak, proiektuak eta nola diseinatu, helburuen sekuentziazioa eta Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean (ODK) gaiaren presentzia agertzen dira; bigarrenean, kontsumitzailearen hezkuntzari buruzko proiektuak jasotzen ditu, Berrizeko Ikastetxean, hezkuntz maila ezberdinetan egindakoak.

**PROFESORES DE LAS DIFERENTES COMUNIDADES AUTONOMAS: "Monográficos". Instituto Nacional del Consumo. Madrid, 1992.**

* Autonomi Elkarteko hainbat irakasle-taldek egindako hamar monografikoetatik hiru daude; gaiok honako hauek dira: «Elikadura», «Aisia» eta «Jolasa eta Jostailua», gainerakoa bukatzeke dago. Material hori nazioan zehar ikastetxe askotan esperimentatu

da eta koordinazio-lan handi baten emaitza da. Hezkuntz-maila guztietarako erabilgarria.

**RODERO GARCIA, T.: "Guía pedagógica de los cuentos de la salud". Dirección General de Salud Pública, Junta de Castilla-La Mancha. Madrid, 1986.**

* Bilduma honetako ipuinak baliabide didaktiko modura erabiltzea posible egiten duen gida pedagogikoa.

**VARIOS AUTORES: "XI Concurso Experiencias Escolares. Educación para el consumo". Editorial Santillana. Madrid, 1989.**

* Santillana Argitaletxeak Kontsumo-Hezkuntzaz antolatutako lehiaketaren XI. edizioan saritutako lanak biltzen ditu.

**VARIOS AUTORES: "Líneas Metodológicas para la Educación del Consumidor". Instituto Nacional del Consumo. Madrid, 1988.**

* Liburu honek, oinarri zientifiko batzuk ezartzeko beharra planteatzen du, Kontsumitzailearen Hezkuntza Eskolan beraietan oinarritzeko sorreratik norabide metodologikorik gabeko prozedura intuitiboen bitartez bideratu baita. Gai hau eskola barruan eztabaidan, hausnarketan eta finkapenean oinarrituko den lan-ildo baten arabera definitzen eta kontzeptualizatzen ahalegintzen da.

**VARIOS AUTORES. CAJA ROJA INFANTIL: "Guía General". "Currículo de la Etapa". "Orientaciones Didácticas". "Proyecto Curricular". "Temas Transversales". "Individualización de la Enseñanza". "Colaboración de los Padres". "Educación en el Medio Rural". "Guía Documental y de recursos". Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid, 1992.**

* Haur-Hezkuntzarako Garapen curricularra MEC barruan. Material bakoitzak, Kontsumitzaile-Hezkuntza lantzeko moduei buruzko iradokizunak edo sugerentziak jasotzen ditu. «Temas transversales» izenburuko liburuak gai horri buruzko informazio zabalagoa eskaintzen digu.

**VARIOS AUTORES: Varios títulos. Colección BREDA de la editorial Alhambra.**

* Bilduma honek oso izenburu interesgarriak ditu gai honen inguruan: «Energia», «Hau kimika al da?», «Zergatik jaten dugu?» eta beste hainbat. Irakasleentzako kontsulta-liburu onak dira.

**VICARIO ZEARSOLO, F.: "Manual de consumo: aspectos jurídicos, institucionales, sociológicos y económicos". Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Vitoria, 1992.**

* Manual tekniko-juridikoa, kontsumoaren fenomenoa ikuspegi orokor batetik aztertzen duena. KIUB eta helduen formakuntzarako kontsulta-material egokia da; 20 gaitan egituraturik dago, erreferentzia bibliografikoak, aipu legalak eta komentarioak ere jasotzen dituelarik.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

# ESKOLAN KONTSUMOA LANTZEKO IKUSENTZUTESKO MATERIALAK

Irakasle Eskolako teknologia berrien sailak, Ihardunek, kontsumoko zehar lerroaren eginkizuna burutzeko lagungarriak izan daitezkeen materialak argitaratu ditu.

Hauexek dira pelikulen izenburuak:

1.- Piti Gaztagile
2.- Piti Eztigile
3.- Piti Ogigile
4.- Piti Amurraindegian
5.- Pistari jarraitu
6.- Dendak
7.- Gehiagarriak
8.- Elikagai laboratejia
9.- Kontserbak
10.- Ikuztailua
11.- Artisautik serie-produkziora . Segak
12.- Lurretik ogira

1-etik 4-ra bitarteko zenbakietan, Piti panpina protagonistaren bidez,artisau produkzioaren prozesuak aurkezten dira eta oso egokiak dira Lehen Hezkuntzako haurrekin erabiltzeko.

5-etik 8-ra bitarteko zenbakietan, metodologiari dagozkion arazoak aztertu eta gelan lantzeko gaiak eta lan hipotesiak planteatzen dira.

Zinta bakoitzak bi atal ditu: lehenengoa irakasleei zuzenduta (6 minutu) eta bigarrena, aldiz, ikasleei, gelan burutzeko lan proposamenekin,(1etik 4 bitarteko zintetan ez bezala hauek ez dute dokumental egiturarik). Zinta hauek egokiak dira Lehen Hezkuntzaren azken zikloan edo/eta Bigarren Hezkuntzan erabiltzeko.

9tik 12ra bitarteko zenbakiak produkzio-prozesu desberdini buruzko dokumentalak dira. Hauetariko batzuk aztertzen ari den produktoaren kontsumoari buruzko gomendioekin bukatzen dira. Lehen Hezkuntzaren azken zikloan edo eta Bigarren Hezkuntzan erabiltzeko egokiak dira. «Lurretik ogira» salbuespen bat da, halere, eta erabil daiteke Lehen Hezkuntza osoan zehar.




**DOKUMENTAZIO ZENTRUA** (0-7 urte)

IRAKASLE ESKOLA
Escuela Universitaria del profesorado. Tel. 714157

ESKORIATZA (Gipuzkoa)